

KROKODILOA GOSEAK JOTA, TELEFONO BATEN ERRUZ

MIKEL PEREZ

Ukraniako akuario bateko krokodiloak telefono mugikorra irentsi dau eta albaitariak kezkatuta dagoz.

Antza danez, bisitari bati uretara jausi jakon, argazkia ataratzen ebilela eta krokodiloak berehala irentsi eban.

Telefonora deitzen dabenean, barrutik soinua ataratzen da eta dardara nabaritzen jako. Animalia mugitu eta uretan sartzen da, baina ez dau ezer jaten.

Akuarioko zuzendariak ez daki zer egin: ebakuntza agindu eta telefonoa berehala atara, ala krokodiloak kaka egin arte itxaron.

EUSKARA 4- ANAYA-moldatua



krokodiloak akuariumean

1.- Irakurri dozun testu hori non aurkitu zeinke?

Iragarki baten

Jostailu baten

Egunkarian

Abesti baten

Natura liburu baten

Olerki liburuan

2.- Zer esaten dau? Osotu.

a) Krokodiloa jota dago.

- beroak - goseak - telefonoak - bildurrak

b) Akuarium bateko krokodiloak bat irentsi dau.

- telefono - albaitaria - ura - harri

c) Bisitari bati jausi jakon telefonoa krokodiloak eban.

- apurtu - murtzikatu - irentsi - zapaldu

d) Akuarioko zuzendaria dago arazoa konpontzeko.

- Pozik - zalantzatan - deika - lasai

3.- Esan egia ala guzurra dan.

..... – Krokodilo batek telefono bat irentsi eban.

..... – Albaitariak ez dabe arazorik ikusten.

..... – Telefono jabeak nahita bota eban telefonoa.

..... – Telefonora deitzean soinua eta dardara nabaritzen dira.

..... – Zuzendariak ebakuntza agindu dau.

..... – Krokodiloak momentuz ez dau ezer jaten.

4.- Erantzun era laburrean:

a) Nork idatzi dau albiste?

b) Zer egiten dau orain krokodiloak?

c) Non gertatu da albiste hori?

d) Telefonoa nori jausi jakon?

e) Zein da argazki oina?